

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

# HM UDAZKENEKO KONTZERTUA

2019ko abenduaren 15ean - 19:00 - Oiartzungo Udaletxea - 5 euro

# Tralhaires

más allá del azul de las montañas - mendien urdina baino haratago - per delà lo blu de las montañas - par delà le bleu des montagnes



Joan Francés Tisnèr

Jakes Aymonino, François Dumeaux, Koldo Amestoy  
Juan Mari Beltran, Domenja Lekuona, Ortzadar



Emanaldi zabala, “panoramikoa”.

Argazkiek eta bideoek, hots paisaiek, abestiek, istorioek, dantzek, ... ikuslea gozarazten dute eta bidaiaria batean, transhumantzia batean, eramaten dituzte ...

Félix Arnaudin etnologoak bere bilketa lanetan, testuetan eta argazkietan Landa Handietako memoria berreskuratu zuen bezala, Tralhaires-en aritzen diren artistek hots, hizkuntza eta zentzumenekin jolasten dute beste zelai batzuetako kontrabandista bihurtuz.

Zelai zabal ezezagun baina iragan mendeko gizakiek, Arnaudinen zeruertza maite zutenek, hainbestetan barru-barrutik amestu eta gogora ekarritakoa, eta gaur egun zeharkatutakoa ... *Mendien urdina baino haratago*, ispilua igarotzen dugu “Bardeara” iritsiz.

Tralhaires-en Juan Mari Beltranek jaso dituen oroitzapenetatik hartu dira Javi Martínez Ciriza artzainaren abelbideari, Bardeara eta Handiara transhumantzian egiten den bideari, buruzko irudi eta hitzak.

Bidezidorrak jarraitzen ditugunean bezala alde batera uzten ditugunean, Tralhaires-ek ekartzen diguna eta emanaldia berritzen duena bizidunetik dator, mugimendutik eta dantzetik.

## Tralhaires, mendien urdina baino haratago...

Lo Nau elkarteak Ortzadar elkartearekin eta Soinuenea Fundazioarekin diseinatu duen proiektua da. Joan Francés Tisnèr musikari eta sortzaile gaskoia da proiektu hau zuzendu duena.

Sorketa lan honetan Lo Nau, Soinuenea eta Ortzadarrek egindako bilketa lanaz baliatu da. Lo Nau elkarte arduratu da Pirinioen iparraldean egin beharreko ikerketa lanaz, hegoaldean Soinuenea eta Ortzadar aritu direlarik.

Pirinioen bi aldeetara bizi den jendearen ohituretatik edan dute. Zenbait gizatalde nola bizi izan diren ezagutu dute gertutik, haien inguruan garatu diren kultur adierazpenak hobeto ulertzeko asmoz; ezagutu eta kontestuan ulertu. Bertan topatu dituzte lanbideak, hizkuntzak, hotsak, soinuak, mugimenduak... Herri batekoak bestekoetatik bereizten dituzten ezberdintasunak agertu dira, baina baita elkarrengana gerturatu dituzten antzekotasun eta berdintasunak ere.

Landa Handietan hasi eta Bardean bukatzen den azaleran bildutako eta inspiratutako irudi, hots, soinu eta dantzekin osatutako emanaldia da lan honen ondorioa. Maiatzean Faltzesen eman zen lehen aldiz eta hainbat plazetatik pasa ondoren Oiartzunen emango dute Joan Francés Tisnèr, Jakes Aymonino, François Dumeaux, Koldo Amestoy, Juan Mari Beltran, Domenja Lekuona eta Ortzadarreko dantzariak.